

IRAKASKUNTZA-GIDA

2021/22

Ikastegia

160 - Lan Harreman eta Gizarte Langintza Fakultatea. Arabako Atala

Zikl.

Zehaztugabea

Plana

GTRABA10 - Gizarte Langintzako Gradua

Ikastaroa

4. maila

IRAKASGAIA

25960 - Bitartekaritza eta Gizarte Langintza

ECTS kredituak: 6

IRAKASGAIAREN AZALPENA ETA TESTUINGURUA ZEHAZTEA

Bitartekaritza eta Gizarte Langintza laugarren mailako irakasgaiak, bitartekaritza eta justizia errestauratiboaren esparru profesionala ulertzeko aukera ematen du, gizarte langintzarekin egon daitezken lotura eta ezberdintasunak ondo bereiztuz. Ikasleak bitartekaritzaren esparru profesional ezagutu eta aztertzeke aukera izango du. Bestalde, bitartekaritzarako oinarriko trebetasun garrantzitsuenak eta gaitasunak landuko dira. Gizarte langintzarekin gertuen dauden esparruak landuko dira: familiak, eskola, komunitatea, zigor-arloa eta presondegiak. Bitartekaritzaren rol profesionala bultzatzea bilatzen da, beste zeregin profesionalekin batuz. Gatazken esku-hartzea eta Gatazken Eraldaketa Hautazko F Moduloaren minorra izanda, aurreko ikasturtean landutako gaitasunak integratzeko aukera emango da, bakoitzaren bitartekari rol profesionala eraikitzeko.

GAITASUNAK / IRAKASGAIA IKASTEAREN EMAITZAK

GAITASUN ESPEZIFIKOAK:

1. Bitartekaritza eta Gizarte Langintzaren arteko harremana ulertu. (GM 01)
2. Gatazka konpontzeko bitartekaritza erabili, gizarte esku-hartze estrategia bezala.(GM 01)
3. Gatazken eraldaketa baketsurako bitartekaritzaren oinarriko trebetasunak hartu. (GM 01)
4. Justizia konponarazlearen oinarriko trebetasun teknikoak hartu. (GM 04)
5. Gizarte Langintzarekin lotuta dauden testuinguru garrantzitsuen bitartekaritza ereduak eta garapena ezagutu eta ulertu.(GM 04)
6. Bitartekaritzaren muga etikoak eta legalak ezagutu eta ulertu. (GM 01, GM 09)
7. Bitartekaritza eta esku-hartze proposamen tekniko bat garatzeko oinarriko ezagutzak hartu. (GM 08, GM 09, GM 10)

CONTENIDOS TEÓRICO-PRÁCTICOS

EDUKI TEORIKOAK

- 1.Bitartekaritza.
 - Gatazka eta bitartekaritza.
 - Bitartekaritzaren epistemologia.
 - Bere historio laburra eta profesionalizazioa.
2. Bitartekaritza gizarte langintzaren esku-hartze bezela.
 - Bitartekaritza eta gizarte langintza: eratzear den bikotea
 - Bitartekaritza eta esku-hartzearen metodoa.
3. Bitartekaritza familiaren gatazketan.
 - Banantze eta dibortzio prozesuak.
 - Familiaren barruko gatazka.
 - 1/2008ko Legea, Familia bitartekaritzakoa.
 - 7/2015 Legea, gurasoen banantze edo haustura kasuetako familia harremani buruzkoa.
4. Bitartekaritza eskola eremuan.
 - Eskoletako elkarbizitza programak.
 - Eskolako bitartekaritza.
5. Komunitateko bitartekaritza.
 - Eguneroko herritarren arteko elkarbizitza.
 - Herritarraren partaidetza vs Bitartekari profesionala.
6. Justizia errestauratiboa, zigor arloko bitartekaritza eta espetxeen inguruko bitartekaritza.
 - Lege-hausleen arduratze prozesuak.
 - Biktimaren protagonismoaren berreskuratzea.
 - Bitartekaritza penala eta bestelako prozesu errestauratiboak
7. Bestelako bitartekaritzaren testuinguruak
 - Kultur artekoa, ingurugiroa, erakundeak, unibertsitatea, polizia, etab.
8. Bitartekaritzaren araudia eta etika.
 - 5/2012 Legea, auzi zibil eta merkataritza-zakoetako bitartekaritza buruzkoa.

- Muga etikoak eta kode deontologikoak.

EDUKI PRAKTIKOAK

1. Bitartekaritza eta prozesu errestauratiboen simulazio ariketak
 - Eskola, familia eta komunitateko bitartekaritzaren oinarrizko trebetasun eta teknikak abian jarri.
 - Justizia errestauratiboaren oinarrizko trebetasun eta teknikak abian jarri.
2. Gizarte esku-hartze eta bitartekaritza proposamen teknikoak
 - Gizarte errealitate gatazkatsua aukeratu eta proposamenaren lanketa.
 - Proposamenaren ahozko aurkezpena.

Ikasgai-zerrenda honek ANECAren oniritzia dauka.

METODOLOGIA

- Eskola magistralak.
- Eskola malguak eta elkarlaneko ikaskuntza.
- Gelako praktikak (bitartekaritza eta prozesu errestauratiboen simulazio ariketak)
- Ikaslegoaren banakako eta elkarlaneko lana.
- Eztabaida taldeak irakurketei buruz.
- Elkarrizketa zirkuloak

IRAKASKUNTZA MOTAK

Eskola mota	M	S	GA	GL	GO	GCL	TA	TI	GCA
Ikasgelako eskola-orduak	45		15						
Horas de Actividad No Presencial del Alumno/a	67,5		22,5						

Legenda: M: Magistrala S: Mintegia GA: Gelako p.
GL: Laborategiko p. GO: Ordenagailuko p. GCL: P. klinikoak
TA: Tailerra TI: Tailer Ind. GCA: Landa p.

EBALUAZIO-SISTEMAK

- Ebaluazio jarraituaren sistema
- Azken ebaluazioaren sistema

KALIFIKAZIOKO TRESNAK ETA EHUNEKOAK

- Garatu beharreko proba idatzia % 50
- Praktikak (ariketak, kasuak edo buruketak) % 30
- Gizarte esku-hartze eta bitartekaritza proposamen teknikoak % 20

OHIKO DEIALDIA: ORIENTAZIOAK ETA UKO EGITEA

ETENGABEKO EBALUAZIOA (Gelara derrigorrez etortzearen beharra, %80)

- Banakako frogak (Idatzizko frogak, % 50)
- Taldeko frogak (Bitartekaritza simulazio ariketak, % 30. Giza esku-hartze eta bitartekaritza proposamen teknikoak, % 20)
- Beharrezkoa izango da guztiak gainditzea, batezbestekoa egiteko.

AZKEN EBALUAZIOA

- Azterketa teoriko-praktikoa egin behar da (% 100) edukiak eta bibliografia jarraituz.

"Ikasleek eskubidea izango dute azken ebaluazio bidez ebaluatuak izateko, etengabeko ebaluazioan parte hartu zein ez hartu. Eskubide hori baliatzeko, ikasleak etengabeko ebaluazioari uko egiten diola jasotzen duen idatzi bat aurkeztu beharko dio irakasgaiaren ardura duen irakasleari eta, horretarako, bederatzi asteko epea izango du lauhilekoko irakasgaiaren kasuan edo 18 astekoa urteko irakasgaienean, ikastegiko eskola egutegian zehaztutakoarekin bat lauhilekoa edo ikasturtea hasten denetik kontatzen hasita. Irakasgaiaren irakaskuntza gidan epe luzeagoa ezarri ahal izango da" (8.3. art.).

DEIALDIARI UKO EGITEA:

Etengabeko ebaluazioaren kasuan, azken probaren pisua bada irakasgaiko kalifikazioaren %40 baino handiagoa, nahikoa izango da proba horretara ez aurkeztea azken kalifikazioa "aurkezteke" izan dadin. Aldiz, azken probaren pisua bada irakasgaiko kalifikazioaren % 40 edo hori baino txikiagoa, deialdiari uko egin nahi dioten ikasleek kasuan kasuko irakasgaiaren irakaskuntza aldia bukatu baino, gutxienez, hilabete lehenago egin beharko dute eskaria. Eskari hori idatziz aurkeztu beharko zaio irakasgaiaren ardura duen irakasleari. (12.2 art.).

Azken ebaluazioaren kasuan: "azterketa egun ofizialean egin beharreko proba ez aurkezte hutsak ekarriko du automatikoki kasuan kasuko deialdiari uko egitea" (12.3 art.).

EZOHIKO DEIALDIA: ORIENTAZIOAK ETA UKO EGITEA

Azterketa teoriko-praktikoa egin behar da (% 100) programaren eta bere bibliografia jarraituz.

Ezohiko deialdiari uko egiteko, nahikoa da azterketara ez aurkeztearekin.

NAHITAEZ ERABILI BEHARREKO MATERIALAK

Egela igotako materiala.

CONSEJO GENERAL DEL TRABAJO SOCIAL.(2015). Trabajo social y mediación. Madrid: Consejo General de Trabajo Social.

FAGET, Jacques. (2005). Erkidegoaren bitartekaritza Europan. Erkidegoaren bitartekaritza eta bake kulturari buruzko I Jardunaldiak. Getxoko Udala.

GEUZ. (2013). Nola jarri abian, pausoz pauso, ikaskideen arteko eskola-bitartekaritzako programa bat. Eusko Jaurlaritza.

LEDERACH, John Paul. (1996). Documentos 8 . Gernika. Gernika Gogoratzuz.

MUNUERA GÓMEZ, Pilar. (2012). Conflicto, mediación y trabajo social. FOMBUENA VALERO, Josefa (coord.): El trabajo social y sus instrumentos: elementos para una intervención a piacere (orr. 171-190). Valencia: Nau Llibres.

OLALDE, Alberto José. (2010). Mediación y justicia restaurativa: Innovaciones metodológicas del trabajo social en la jurisdicción penal. Miscelánea Comillas: Revista de Teología y Ciencias Humanas 68 (133): 761-90.

OLALDE, Alberto José. (2012). Mediación y trabajo social: Una pareja en construcción. V Jornada de trabajo social : ¿mediamos o sustituimos?: Gizarte langintzako V jardunaldia: Bitartekari edo ordezkari, hori gakoa.53-70.Euskal Herriko Unibertsitatea. Argitalpen Zerbitzua.

ORTEGA, Rosario, eta DEL REY, Rosario (2006). La mediación escolar en el marco de la construcción de la convivencia y la prevención de la violencia. Avances en supervisión educativa: Revista de la Asociación de Inspectores de Educación de España.

RONDÓN GARCÍA, Luis Miguel, eta MUNUERA GÓMEZ, Pilar. (2009). Mediación familiar: Un espacio de intervención para trabajadores sociales. Trabajo Social (Universidad Nacional de Colombia), (11), 25-41.

BIBLIOGRAFÍA

Oinarrizko bibliografia

BOQUE, María Carme.(2002). Guía de mediación escolar. Barcelona. Rosa Sensat.

CORNELIUS, Helena, y FAIRE, Shoshana. 1996). Tú ganas, yo gano. Todos podemos ganar. Cómo resolver conflictos creativamente y disfrutar con las soluciones". Madrid: Gaia Ediciones.

HAYNES J.M. (1995). Fundamentos de mediación Familiar.Madrid: Gaia

MOORE, Christopher. (1995).El proceso de mediación. Métodos prácticos para la resolución de conflictos". Barcelona: Ed. Granica.

MUNUERA GÓMEZ, Pilar. (2014). Nuevos retos en mediación. Valencia: Tirant Humanidades.

NEUMAN, Elías. (1997). ¿Mediación y conciliación penal?. Buenos Aires: Ediciones Depalma.

OLALDE ALTAREJOS, Alberto José .(2017). 40 ideas para la práctica de la justicia restaurativa en la jurisdicción penal. Madrid: Dykinson.

PARKINSON, LISA. (2005). Mediación familiar. Madrid: Editorial Gedisa

POYATOS GARCÍA Ana. (Coord.). 2003). Mediación familiar y social en diferentes contextos. Valencia: Nau Llibres.

PUNTES, Salvador. eta MUNNÉ, María. (relatores).(2005). Los servicios de mediación comunitaria. Propuestas de actuación.Barcelona: Diputación de Barcelona

PUNTES, Salvador. (2007). La mediación comunitaria. Ciudadanos, derechos y conflictos. Cámara de Comercio de Bogotá. Fundación Universitaria empresarial de la Cámara de Comercio de Bogotá.

RAMOS CECILIA. (2003). Un mirar, un decir, un sentir en la mediación educativa. Colección Visión Compartida, Librería Histórica.

RIPOL-MILLET, Aleix.(2001) Familias, Trabajo Social y Mediación. Barcelona: Paidós.

SOLETO, Helena, eta OTERO, Milagros Maria. (2007). Mediación y solución de conflictos habilidades para una necesidad emergente. Madrid: Tecnos

Gehiago sakontzeko bibliografia

CASANOVAS, Pompeu, MAGRE, Jaume eta LAUROBA, María Elena. (2011). Libro Blanco de la mediación en Cataluña. Barcelona: Departament de Justícia. Generalitat de Catalunya.

FARRÉ i SALVÀ, Sergi. 2004. Gestión de conflictos: Taller de mediación: Un enfoque socioafectivo. Madrid: Ariel.

IGARTUA, Idoia, VARONA, Gema eta OLALDE Alberto José. (2012) Diccionario breve de justicia restaurativa: una invitación interdisciplinar e introductoria a sus conceptos clave.Saarbrücken, Alemania: Editorial Académica Española.

RONDÓN GARCÍA, Luis Miguel (2012). Bases para la mediación familiar. Valencia: Tirant Lo Blanch.

OLALDE ALTAREJOS, Alberto Jose (2020). Justicia restaurativa y victimizaciones a menores en su sexualidad en el seno de la iglesia católica española: Reflexiones inacabadas desde una práctica incipiente. Revista de Victimología, (10), 119-152.

Aldizkariak

- Conflict Resolution Quarterly
- International Journal of Conflict and violence.
- Journal for the Study of Peace and Conflict
- Peace Conflict Development. An interdisciplinary Journal.
- Revista de Mediación (AMM)
- Revista Mediatio (Sevilla)

Interneteko helbide interesgarriak

<http://www.poderjudicial.es/cgpj/es/Temas/Mediacion>
<http://www.asociacionhablamos.es>
<http://www.ammediadores.es>
<http://www.mediacionypacificacion.es/index.php>
<https://www.ucm.es/imedia>
<http://www.acuerdojusto.com>
<http://mediacionesjusticia.com>
<http://acdmassocialnetwork.ning.com/>
<http://www.aditze.com>
<http://agoraberri.blogspot.com/>
<http://www.baketik.org>
<https://www.euskadi.eus/mediacion-familiar/web01-a2famil/es/>
<http://www.bitarbask.org>
<http://www.egintza.com>
<http://www.fundaciongizagune.net>
<http://www.garrebil.com>
<https://www.justizia.eus/servicio-justicia-restaurativa>

OHARRAK

1. Idatzizko komunikazioan zuzentasun ezak (gramatikala eta ortografikoa) suspentsoa ekar dezake.
2. Ebaluazio proba batean kopiatu egin dela egiaztatuz gero, tartean sartuta dauden ikasle guztiei «suspentso» kalifikazioa jarriko zaie, bakoitzaren erantzukizuna gorabehera. Pertsona bat kopiatzen ari dela proban bertan egiaztatuz gero, momentuan bertan proba egiteari uzteko agindu ahal izango zaio (11.3. art.).
3. "Normalean, eta besterik adierazi ezean, UPV/EHUko ebaluazio probetan ikasleek debekatuta izango dute liburuak, oharrak edo apunteak erabiltzea, bai eta tresna edo gailu telefoniko, elektroniko, informatiko edo bestelakoak erabiltzea ere. (Graduko Titulazio ofizialeko ikasleen ebaluaziorako arautegia" (3. puntua, or.5).
4. "UPV/EHU honako hauek joko dira jokabide makur edo iruzurrezkkotzat ebaluazio probetan edo ebaluatu beharreko lan adademikoak egitean eta aurkeztean: Lanak plagiatzea, hau da, ignoren lanak kopiatzea jatorria edo iturria aipatu barik eta norberarenak balira bezala ematea ebaluazi akademikorako aurkezten diren testu edo lanetan" (2.a. puntua).
5. EBALUAZIO EZ PRESENTZIALA COVID-19 DELA ETA
Etengabeko ebaluazioari dagozkion lanak egin dituzten eta eskolak jarraitu dituzten ikasleek banakako lan teoriko bat emango dute gai-zerrendari erantzunez (% 50) eta gizarte esku-hartze eta bitartekaritza proposamen teknikoa (% 50).
Etengabeko ebaluazioa jarraitu ez duenak, azken froga bat egin beharko du, irakaskuntza gidan jasotako derrigorrezko materialak oinarri (% 100).